

Azaroaren 15ean, Euskal Selekzioa eta Palestinako Selekzioa izango dira aurrez aurre San Mamesen

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 18/09/2025

Gutxienez 355 futbol jokalaririk erail dituzte Israelek genozidioa hasi zuenetik; baita beste kirol federazioetako 277 kide ere.

Euskal Selekzioa azaroaren 15ean itzuliko da zelaietara, eta Bilbon egingo du, San Mames futbol zelaian. Egun horretan egingo dio aurre Palestinako selekzioari. Palestinako Futbol Federazioak albisteak baieztatu ditu Cadena Ser irratiari, Euskadiko Futbol Federazioarekin "koordinazio ezin hobean" lan egiten duela adieraziz. Beste aldetik, Euskadiko Federazioak ez du albisteak baieztatu ez gezurtatu.

Palestinako selekzioarentzat hau ez da futbol partida soil bat, Gazan eta Zisjordanian gertatzen ari dena salatzeke beste aukera bat baizik. Palestinako Futbol Federazioak adierazi duenez, 355 futbol jokalaririk erail dituzte Israelek Palestinaren aurkako genozidioa hasi zuenetik; baita beste kirol federazioetako 277 kide ere.

Euskal Herrian gero eta gehiago dira Israelen aurkako boikot kanpainarekin bat egin dutenak eta Palestinari sostengua agertu diotena, baita kirol arloan ere. Horren frogak gisa, Espainiako Vueltako protestak izan dira. Izan ere, **Bilboko etapa geldiarazi zuten Israelen aurkako protestek**, eta ez ziren helmugara iritsi. Bilboko erdigunean amaitu behar zuen txirrindularitza etapak, baina Deustun sartzeaz zirela antolakuntzak erabaki hori hartu zuen, helmuga ingurua manifestariek beteta zegoelako. Ertzaintzak hiru pertsona atxilotu zituen.

<https://eh.lahaine.org/azaroaren-15ean-euskal-selekzioa-eta-palestinako-selekzioa>